



kale

Elgetako aldizkaria abendua 41zk.

merkatua astelehenero

Goibek



Maderas Gallastegi, s. a.

MENDI USTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA)

Tel.: 94 6820568 eta Faxe: 94 6583061.

ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inisialak edo gaitzizena agertuko dira. Ez da komeni eskutitzen luzera 15-18 lerro baino luzeagoa izatea. Bidali sobran Goibekokale ipinita edo bota udaletxe azpiko buzoira.

Goibekokalek
jai zoriontsuak
opa dizkizue.

Hurrengo alea urtarrila-
ren 30ean aterako dugu

Orain sekula baino indartsuago BAI EUSKARARI

Ahal dugun elgetar guztiok joan behar dugu euskarak merezi duela argi eta garbi gera dadin. Euskal Herriko bost estadioak bete behar ditugu euskaltzalez. Goibekokalek ere kanpainarekin bat egin eta autobusak antolatu ditu egun horretarako. Autobusok arratsaldeko lauretan irtengo dira herriko plazatik eta izena aurrez ematea komeni da zenbat autobus beteko ditugun jakiteko. Ana Mari dendan, liburutegian, Goibekokaleko erantzungailuan edo Udaletxean ere eman dezakezue izena.

Akordio soziala dugu kanpainaren gako. Sinatzen duenak euskararen normalkuntzaren bidean aurrerapausoak emateko konpromisoa hartu duela esan gurako du, eta besteok ere, konpromisoa adierazteko egina daukagu zita zapatuan.

Guztiok gara protagonista euskara erabiltzeko eta horretarako egiturak prestatzeko konpromisoan. Helburua datozen belaunaldiak alor guztietan euskaraz bizitzea da. Euskarak aurrera egin nahi badu asko du egiteko eta etorkizuneko erronka berriei erantzuteko euskal herritar guztiok bat egin eta denok elkarrekin joatea ezinbestekoa da.

Euskararen geroa ez dago ziutatua eta talde ideologiko konkretuen gainetik erakutsi behar dugu euskara zenbat eta zabalagoa eta ñabardura handiagokoa izan aberatsagoa izateko modua dagoela.

Zapatuan bada badago zer erakutsi. Denontzako prestatuak dauden ekitaldiak asko dira. Musika emanaldi pilo bat, bi mila haur kantari, lauhun nagusi abesbatzetan, zortziehun dantzari, 150 gaitero eta atabalero, pailasoak, bertsolariak... eta zu zeu, jaiko benetako protagonista.

Esan zuk ere **bai euskarari**.

Iban Arantzabal Arrieta

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-714/2/96

Estampaciones **Elgeta**

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Salbador, 32. Tel eta Faxes: 76 82 61



Beti bizirik

Bizirik irautea omen da bizitza. Eta zuk bizirik eman dituzu hogeita hamasei urte. Beti irripartsu, inoiz ez geldirik.

Kirolzale amorratua, mendia eta itsasoa biziki maite izan dituzu. Euskaltzale aparta, euskara maitatuz euskaldun berriei zure iturritik edaten eman diezu. Bertozale ezin hobea, bertsoaren sua pizten lagundu duzu. Euskal Herri aske bat bilatuz, falta zaizkigun seme-alaben hutsunea aldarrikatu duzu. Arlo orotan auspo bikaina izan zara.

Zure bularretik edan dute lon, Peru eta Lorek. Zure maitasuna jaso zuzen, zure aholkuekin hezi dituzu. Zure beso artean egin dituzu zorionsu.

Zure bizi indarra zabaldu duzu inguruko guztiongan, gertuko nahiz ez hain gertukoengan. Euskal Herriko txoko guztietan ibiltari, orain ere haizearekin batera zabilta Euskal Herri osoan zehar. Joaten garen toki guztietan aurkituko zaitugu, eta zure irriparreari beste irriparre batekin erankungo diogu. Guztion kide- baina batez ere etxe koena- izango zara mendi buelta bat egitean, bertso saioetan, euskaltegian, Euskal Herria aske izatean... Baina batez ere Elgetako eta Erandioko txokoetan. Zuk erakutsitakoarekin egingo dugu aurrera guztiok, bereziki zure hiru kuttunek. Peruk eta Lorek aitaren laguntzarekin egunero hitz egingo dute zurekin, eta ipuinik gustukoena izango zara haientzat oheratzerakoan. Bizitza zaila da, baina errezagoa egingo zaigu zure moduko adibideekin.

Bizirik irautea omen da bizitza. Eta zuk bizirik jarraituko duzu gure oroimenak bizirik dirauen arte.

Besarkada bat.

Ainhoa Agirreazaldegia



Omenaldia Begori

Begok omenaldi zoragarria jaso zuen. Ospakizuna hiletetan ohituta gaudena baino alaiagoa izan zen, berari zegokion moduan. Izan ere, Bego oso pertsona

alaia zen eta hori berehala igorri izan digu noiz-bait bere inguruan ibili garenoi.

Antena ondoan dagoen mendi tontorrean izan zen omenaldia. Lotsagarria badirudi ere, Elgetakua izan eta behin ere ez nintzen bertan egon. Ah ze paisaia ederra ikusten den tontorretik! Antena bizkar aldean utzita, noski.

Paisaiari jaramon egin ondoren lehenengo gauza 8.000 metrotako mendiak egitera joan ohi diren espedezioen oinarritzko kanpamenduetan jarrita egoten diren kolore biziko tira batzuk ikusi genituen pare bat sokatan zintzilik.

Arreta apur bat jarrita tirek izenak edota olerkiren bat idatzita zutela ohartu ginen, beraz, guk ere gure izenak jarri genituen laranja koloreko batean.


Esaldi politen bat asmatu nahian ere ibili ginen, baina azkenean zapia izenekin bakarrik zintzilikatu genuen. Zenbaitetan bai zaila dela sentitzen dena adieraztea!

Ekitaldia aureskuarekin hasi zen, Begoren oroimenezko idatzekin segi, eta gero laukote batek kanta herrikoi bat abestu zuen, gitarra eta guzti. Segidan beste lagun batek beste kanta bat abesteko zuten "a kapela".

Gero, Begoren errausak lau haizetara zabaldu zituzten, Jonen, bere senarraren laguntzaz. Deigarria bazen ere lasai zegoen. Amaitzeko Ainhoa Agirreazaldegik, Jon Sarasuak eta Jokin Sorozabalek bertso bana bota zuten. Ekitaldia bukatuta etxerantz abiatu ginen txistu doinuen laguntzakin.

Benetan, Begok zegokion moduko omenaldi xume eta atsegina jaso zuen. Orain guri dagokigu hark zuen poztasuna gure oroimenean gordetzea.

Amaia Askasibar



GOJBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi, Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi. **Erredaktoreak:** Igor eta Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Maite Mandaluniz eta Ainara Iribar. **Maketazkoa:** Bittor Gallastegi. **Administrazioa:** Susana Jimenez eta Esti Retolatza. **Publizistak:** Jone Oianguren eta Izaro Arrazola. (Tel: 943789085). **Banaketak:** Ikastola. Tirada: 650 ale. **Inprimategia:** GERTU koop. (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538. **E-mail:** goibeko@topagunea.jalgi.com

Goibekokalek ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Elgetak ere bai euskarari

Mendizorrotzara joateko autobusa antolatu du Goibekokalek

Abenduaren 26an eukararentzat XXI. mendea hasiko da. Orain dela 20 urte Bai Euskarari lemapean egin zena, egun honetan errepikatuko da Euskal Herri osoan.

bat bueltatuko gara berriz Elgetara. Horrela, haurrak, gurasoak, gazteak... denok konprometitu behar dugu euskararen alde. Sekula baino egiteko handiagoa dago.

Hilaren 26an Agilera, Anoeta, Mendizorrotza, El Sadar eta San Mameseko futbol zelaietan izango da jaialdi bateratua. Futbol zelai guztiak interkonekatatuak egongo dira pantaila erraldioen bidez. Jailadian dantzariak, kantzariak, bertsolariak... izango dira.

Elgetarroi Mendizorrotzara joatea egokitu zaigu eta horretarako erraztasunak jarri dira. Ekitaldia 17:30etan hasiko da eta bukatzeaz

Goibekokalek antolatu dituen autobusak arratsaldeko 16:00etan irtengo dira plazatik. Izena Goibekokaleko erantzungailura deituz, liburutegian, Udaletxean, Gaztetxean eta Ana Mari liburudendan eman daiteke. Autobusean bertan ordainduko da 1.000pta. Lerro hauetatik herriko elkarte guztiei, hurrei, gurasoei, jubilatuei, gazteei... guztioi dei egiten dizuegu, denok batera euskarari bai esan diezaigun.




Ertamerikara dirulaguntza

EGAK 280 kilotako txerria zozketatu zuen

Ertamerikak jasandako haize erauntsiaren ondoren gure herrian izan dira bertako kalteei aurre egiteko ekintzak. Udaletxeak 100.000 pta. bidali eta gero Gaztetxeak herritarren laguntzaz ere 100.000 pta. tik gora bidaltzea lortu du. Herriko kuadrila batek txerri bat plazara ekartzeko asmoa zuela jakin eta txerriaren zozketako dirua erdimerikara bidali dute. Hala ere benetako lana orain egin behar dela ere

jakinarazi nahi izan digute. "Iparraldeko desarrollo sistemak sortzen ditu hegoaldeko kalte guztiak." Haizerauntsirik gogorra beraz, iparraldea dela argi dute. Iparraldeko haizerauntsia izan omen da Mich.

Txerriak lan asko emango dizkio jabe berriari, bitartean gu ezin gara ahaztu oraindik ertamerikan lan asko dagoela egiteko.



280 kilotako txerriaren zozketako dirua ertamerikara bidali du EGAK.

GRUPO
IFA
Produkturik onenak,
prezio onenean
ALDI
Tel:
76 80 98.

Andoni Bolinaga
METALAK
FS718
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

Diputazioak aurkeztutako Gipuzkoako Bide Planari alegazioak

Udaletxeak bi alegazio jarriko ditu

Elgetako Udaletxeak abenduak 15ean egindako plenoan Gipuzkoako diputazioak aurkeztu duen Bide planari bi alegazio jartzea onartu zuen.

Alegazio hauek Mankomunitateak onartu ditu iada, inguruko herriek jarritakoekin batera. alegazio bat Bariantearen ingurukoa da eta bestea Elgeta eta Bergara arteko errepidearena. Bariantea, aurreko bide planean 1.999 eta 2.001 urteen artean egitekoa zen. Plan berrian ordea hau atzeratu egiten da. Udaletxeak bariantearen obreak lehen jarritako egunetan

bete daitezten eskatuko du.

Elgeta eta Bergara errepideari dagokionez Bergarak San Juaneraino berritzeko alegazioa du. Egokitu beharreko bide zatia horrela 4 km.-koa da. Elgetak bide hau egokitzea eta zabaltzeko alegazioa jarri du. Bide hau da elgetarrok erabili beharrekoa epaitegira, eskolara, medikuarenera... joateko. Arrazoi honengatik eta pisu askodun kamioiak industrialdera ekartzeko beharrezko delako egin dute plan berrian errepide hau sartzeko eskakizuna.

Presoen eskubideen mozioa onartuta

Udalbatza osoa dispertsio eta gaur egungo politika penitentziarioaren aurka

Abenduak 15eko plenoan HB eta PNVk, lehenengoak aurkeztutako mozioari baiezkoa eman zioten. Presoek, dagokien zigorra bere inguru familiar eta sozialeko esperean betetzeko duten eskubidea aldarrikatu dute horrela. Hau eskubidea eta administrazio publikoen espere legediaren betebeharra da.

Udalbatzak zigorraren 3/4ak beteta eta gaixotasun zendezinak dituzten presoak askatzeko akordioa onartu zuen. Euskal instituzio eta hiritar asko, eskakizun honekin ados dauden arren, Gobernu espainol eta frantsezaren

jarrera ez entzutearena da. ETAK baldintza eta mugarik gabeko su etena aldarrikatzeak sortu duen egoera berria den arren, bi gobernuen presoekiko sailkapen eta kalifikazio politikoa mantentzen dute. Betirako benetako bake prozesu bat bultzatu eta gauzatzeko hurrats ugari eman behar dira. Gasteizko Legebiltzar eta Iruñako parlamentuari aurrean aipaturiko puntuak gauzatzeko ahalegina egiteko eskatzen zaie.

Honetaz gain udalbatzak abenduaren 31an herrietan egingo diren mobilizazio ixiletan parte hartuko du.

KONTUZ!!! LOTERIAKO ZENBAKIA 54250 DA

Administrazioak izandako arazo bat dela eta, Goibekokaleko loteria zenbakia ez da txarteletan erosi ahal izan duzuen. Beraz, 21.528 zenbakira beharrean 54.250 zenbakian jokatu duzue. Gure errua izan ez bada ere barkatu eragozpenak eta zorte on zenbaki berriekin.

EGaren biltzar orokorra

Badira 6 urte herriko gazteek Gazte Asanblada sortu zutenetik. Urte hauetan egindakoaren balorazioa egin eta aurrera begira egiteko duten lanari buruz hitz egingo dute batzarrean, urtarrilaren 9an arratsaldeko 16:00etan.

Zabor bilketa berezia gabonetan:

Deba Garaiko Mankomunitateak jakinarazi digunez Abenduaren 24an eta 31an zabor bilketa arratsaldeko 14:00etara aurreratuko da. Zabor poltsak eguerdiko 13:00etatik aurrera atera behar dira, bestela jaso gabe geratuko baitira.

Kuadrilen arteko III Olinpiadak

Deba Garaiko Kuadrilen arteko III Olinpiadak izango dira Oñatin. 30ean hasita Zubikoa kiroldegian 16 urtetik gorekoek hartu dezakete parte 8 eta 12 pertsonak osatutako taldeetan.

Olinpiada hauetako kuadrilek egin beharko dituzten kirolak igeriketa, esku pilota, hokeia, saskibaloia eta soka tira dira. Sariak honakoak dira: lehenengoak 70.000pta, bigarrenak 35.000pta eta hirugarrenak 20.000pta. Izen ematea eta informazio gehiago Deba Garaiko Kirol Zerbitzuetan, 943 79 33 99 telefonora deituz. Kuadrilen izen ematea lehenbailehen egin behar da.



Leku paregabea, eguneko menua

Astehenetik ostiralera zabalik goizeko 9:00etatik



Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pzta.
Karta.

Antzerkilariak

Pasa den abenduaren 16an Bilboko PINean eduki zuten arrakastaren ondoren, Angiozarko Herri Eskolako ikasleek urtero herriari eskaintzen dioten Gabonetako emanaldiairen barruan eskainiko dute "Iontxu Zoriontsu" antzezlan. Emanaldia Saloian izango da abenduaren 22an, arratsaldeko 4,30etan, eta denok zaudete gonbidatuta.

Laura Etxaniz eta Jose Gallastegik haurra izan dute

Maite Gallastegi Etxaniz pasa den abenduaren 9an jaio zen. Angiozartar berri honen negarrak Donostiako Quiron Klinikari entzun zituzten Kontzezino biharamunean, nahiz eta Maitek ez zeukan itxuraz gogo haundiegirik negu hotz honetara saltoa egiteko. Bai ama eta baita alaba ondo dira, eta aita eta anaia Mikel pozez kabitu ezinik. Zorionak guztiei.

Gabon Kantuan

Ohi dutenez, aurten ere ikastolako haurrak kantari irtengo dira Gabon giroa herrian zehar zabaltzeko asmoz. Atea jotakoan esku zabalak izan denok! Era berean Gaztetxeak ere irtetzekotan dira "kantari", ahotsak laguntzen badie. Ateratzen dutena Gaztetxean faltan dituzten gauzak (musika aparatua, muebleak, etabar) erosteko erabiliko dute.



Gabonetako Oporretan egunero pelikula eta dokumentalak.

Angiozar Bailarako Liburutegiak eta "Angiozarko Telebista Kablez"ek antolatuta opor haue- tan egunero pelikula eta dokumentalak etxeko telebistetan ikus- teko aukera izango da. Dakizuenek kable sarea kalean dago zabalduta bakarrik eta ber- takoek dute, oraingoz, aukera honetaz baliatzeko aukera. Emanaldiak arratsalde izango dira, 4etatik aurrera eta denon gustokoak izango direlakoan gaude.

Iragarri zaitez.

Tel:78.90.85
Faxa: 789043

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak Sukaldeak
Etxaurreak Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

Taberna Zaharra jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Antonio Rodrigues Da Cruz

IAPAM

Galdaragintza arina

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Erremerteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA
Tel: 76 81 01 Faxa: 78 90 14

BEGO, HIRETZAT

Azkonabieta aldean
barreiatu digun hire irrifarra,
mendiaren altzoan
hedatu dun hire bizigozoa,
naturarekin bat eginez.

Eta hemen hago,
haizearen uluruarekin bidaiatuz,
euriaren tin-tin hots pausatuarekin
dantzatzuz,
izarrekin lo eginez,
eguzkiaren fereka epela sentituz,
ilargiaren altzoan kulunkatuz,
hire zango prestuekin belarraren
freskotasunean
pausoz pauso,
guri so.

Ez, ez gauden friste,
irrifarra erakusten baitigun.
Bai, pozik gauden,
lasai hagolako,
bizitza bizitasun osoan bizitu dunalako,
ingurukoei, kemena, indarra, bizitzeko
sugarra eman digunalako,
hi, heu,

alaba, bikotekide, ama zoragarri,
lagun ezinhobe
pertsone oso, bizi
izan haizelako.

Bizitzaren oihanean trebe,
bizipozaren jabe, ixilik habil, ezer esan
gabe, hau omen dun bizi lege.
Hire maitasuna gurean zagon
aske eta libre,
bide berri bat hasi dinagu xuabe-xuabe,
betiko gurekin, Bego Izagirre.



Goibekokaleko laguna

Lerro hauen bidez Goibekokaleko lantalde osoak familiako-
ei doluminak eman nahi dizkie. Bego hasiera-hasieratik
izan da gurekin eta aldizkariaren sorreran ere asko lagun-
du zigun. Beti egon izan da gure gainean eta ahal den guz-
tian ondo-ondotik segitu du gure martxa. Berak erakutsiak
ez ditugu sekula ahaztuko. Eskerrak ematea besterik ez
zaigu geratzen.

Ziur amaren euskaltzaletasun eta izate ona seme-
alabek bere zainetan daramatela. Ez dugu sekula ahaztuko
hainbat modutan kolaboratzaile izan den Bego laguna.
Zinez eskerrikasko.

Goibekokale



Ze ezberdintasun dago merkaua ta dendian artian?



Miren Amaia Osoo
Etxekoandria (35 urte)


Normalian aukera gehixau egoten da merkauan, erropia be erosi leike ta tenporadako produktuak lehenau aillegatzen dira dendetara baiño, eurak herrittik-herrira gehixau mobitzen diralako. Nik ohitturia dakat merkauan erosteko, kalidade antzerakuakin preziua pixkat bajuaua izaten dalako.

Merkaua erosuaua da, bertan danetik topau zeinkelako, baiña bestela ez dot uste diferentzia haundirik dagonik kalidadian edo preziuan.

Ana Urretabizkaita
Etxekoandria (42 urte)



Nik ez dakat ohitturaik merkauan erosteko. Behin edo behin erosi dot zehozer azkenengo orduan, baiña ez dot uste diferentzia haundirik egongo danik. Jentia esaten dau preziua merkiauak dirala baiña kalidadia be eskasau izango dala pentsatzen jata.



Miguel Arantxelena
Biharraña (43 urte)

Ez dot uste diferentzia haundirik dagonik, bakarrik toki baten gauza desbendin asko topau zeinkezela. Lehenau generua kalidade eskasaua izaten zan dendetan baiño, baiña oiñ leku danetan antzerakua izaten da.



Guntze Telleria
Biharraña (31 urte)

Merkauan aukera gehixau dago ta nahiz ta kalidadia igual ez izan dendetako produktuen bestekua, preziuetan alde haundixa dago. Merkauan produktuak bastante merkiauak dira dendetan baiño.

Gloria Barrero
Etxekoandria (48 urte)



Desberdintasun haundixa dago, merkauan dendetan baiño aukera gehixau dago, bai frutan, bai gozokitetan. Gaiñera perziuan be alde haundixa dago.

Dilar Bolinaga
Etxekoandria (56 urte)



Iragarri zaitez.

Tel: 78.90.85

Faxa: 789043

EROSLE

M. Asun Agirre

Salbador 26. Tel: 768190

Kartetan jokatzeko giro egokia

Tel: 768093

Patxi Taberna

Tel: 76 81 31

M^a Jesus Arrazola

VIVO

Janari denda

M^a ESTHER

Tel: 76 81 67

ARIES: Laiñotuta egoten dan egunetan ziharo tristetuta egoten haiz. Ez dok/don horrenbesterañokuz.

.....

TAURUS: Ezin haiz bizi osuan gauza berdinak esaten egon; diskursua aldatzeko ordua dok/don.

.....

GEMINI: Goixalderarte dantzan ibilli ezkerok domekia ohian pasau bihar. Ai ene, gero aste azkena motza dala, hoixe!!!

.....

CANCER: Aste azkenak deskantsatzeko dala! Bai, hi be geminik moduan edo juergan edo ohian.

.....

LEO: Loterixia erosi, ikusiko dok/don martitzenian suertia eukiko dok/don. Ez ahaztu lagunekin!!!

.....

VIRGO: Brometan-brometan baiña azkenian erre egitten haiz. Gero zeinek atara hi sutatik?

.....

LIBRA: Ondo etortzen dok/don nohian behin zeoze egiñ baiña lehenau bi minutu gauziai gaiñian pentsatzen jardutia.

.....

SCORPIUS: Estomago jira horrekin, gabonetan jaten dan beste jateko moduan hago hi, koittau!

.....

SAGITARIUS: Ganoraz zaindik/zaindin hire aldamenekua gaba epeletan pasatzia nahi badok/badon.

.....

CAPRICORNIUS: Gero ta zaharraua haiz baiña ez jata/jatan juergarako gogua fan. Espiritua gazte mantentzia izango dok/don?

.....

AQUARIUS: Egun lasaixa pasau ezkerok, bixar mendira edo bestela, buelta egiñ ta izarapera.

.....

PISCIS: Olentzerotako erregaluak erosteka. Mobidu hadi berandutu baiña lehen.

.....

Jose Luis Olabarria Bihargiña (35 urte)

- Zenbat urte kartero lanetan? 9 urte.
- Bitxikeriarenbat euki dozu zure lanian? Ez.
- Zer da gutxien gustatzen jatzuna zure biharretik? Larregi ibiltzen naizela. - Ta gehixen? Bapez.
- Zenbat denbora pasatzen dozu kartak banatzen? Pare bat ordu.
- Elgetatik kanpora bizi biharko baziña, nun biziko ziñake? Ez nitzake Elgetatik kanpora biziko.
- Ezkontzian aldekoa zara? Ez.
- Pisu batian bizitzekotan zelan nahixau: lagunekin, bakarrik ala neska lagunakin? Bakarrik.
- Gabon zaharretan urtetzeko ohitturaik badakazu? Bai. - Nora? Elorrixora.
- Uste dozu herrixan kultura mailan nahikua egitten dala? Bai.
- Oheratu aurretik egitten dozun azkenengo gauzia? Irakurri pixkat.
- Zein dozu musika gustokuen? Euskalduna.
- Gustoko musika talde bat? Kortatu.
- Futbola zelan definituko ziñuke? Zorotegi bat.
- Neska bat ezagutzen dozunian zertan fijatzen zara? Danian generalian.
- Edurra ala eurixa nahixau? Edurra.
- Amets bat? Danok lan gutxiau egittia.
- Egiñ dozun bidairik luziena? Ameriketara.
- Noiz etara dotzue azkenengo argazkixa? Oiñ dala pare bat egun.
- Zelan agurtuko ziñake neska panpox baten aurrian? Bixararte.



Berezitasuna:
Buztana.
Pintxo gozoak
otartekoak.

BOLATOKI
TABERNA-JATETXEA

tel: 768284

ELKORO TORLOJU LANTEGIA
DEKOLETATA ETA
FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua Z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

Ohiko dendei alternatiba

Elgetan, beste herri askotan bezalaxe, merkatuak bere leku berezia izan du azken urte hauetan

Batzuk fruituak, beste batzuk arropa, besteek berriz gaztak, makailua... Beraien helburua ez da ohiko dendei aurre egitea, eguneko ogia jateko aukera izatea besterik ez dute nahi. Merkatuko saltzaileak dira. Duela urte askotik ona astelehenero gure artean.

Egunak joan eta egunak etorri herririk herri dabilta. Traste guztiak furgonetan sartu eta gaur ona, bihar hara eta hurrengoan bestera ibiltzen dira urte osoan zehar.

Elgetako feria eguna astelehena izaten da. Bata, azken uneko alkondarak saltzera, beste kantzontzilo eta kule-ro politenak eskaintzeko prest, ondokoa berriz, beste inon aurkituko ez ditugun laranja saltzen...

Betebeharrak

Francisco Godoi Sanchezek, Patxik, zazpi urte daramatza Elgetara etortzen. Umeentzako arropa eta barruko arropa saltzen du. Bere denda mugikorra Elgetako plazan jarri ahal izateko hainbat betebeharrak izan zituen, "Lehenik eta behin Udaletxean eskakizuna luzatu behar da. Lekua egonez gero komisiotan sartzen zaituzte eta baimena ematen badute lizentzia fiskala eta autonomo delakoa aurkeztu beharra izaten da ". Horretaz gain hiruhilabetero diru kopuru jakin bat ordaindu behar izaten dela diozku Patxik " Hiru hiletik behin 7.800 pezeta ordaintzen dugu ".

Gehien zer saltzen duen galdetzean logikarekin jolasten du azpeitiarrak, " Elgetan, oso ume gutxi dagoenez, gehien saltzen dudana barruko jantziak dira. Azpeitian aldiz, alderan-

tzizkoa gertatzen da. Han umeentzako arropak saltzen ditut batez ere ".

Isabel, 18 urteko berriztar gaztea dugu eta bere aitarekin batera "txutxeriak" saltzen ibiltzen da. Astean zehar, beste

guztiak bezala, Gipuzkoa eta Bizkaiko hainbat herritara joaten dira beraien produktuak saltzera. " Elgetaz gain Lekeitiora, Markinara, Amurriora eta beste zenbait herritara joaten gara ". Isabel osopozik dago



Jose Ramon Etxabe hainbat sari irabazitakoa da.


Patxi (umeentzako eta barruko arropa saltzailea): " Elgetan, oso ume gutxi dagoenez, gehien saltzen dudana barruko jantziak dira Azpeitian aldiz, alderantzizkoa gertatzen da. Han umeentzako arropak saltzen ditut batez ere. "

F . O . R

Kalitate kontrola

Piezei azken ukituak


Tel: 76 80 38



salbador
19
behea

**IBAIBA-
RRIAGA**
GARRAIOAK

Tel: 768072
Salbador zeharbidea 2
ELGETA



San Roke 6
tel: 768168.

izan duten harrerarekin, " Hilabete bat besterik ez daramagu Elgetara etortzen eta oso pozik gaude. Ez da asko saltzen, beharbada gaur egun argala izatea oso modan dagoelako. Karameloak saltzen ditugu batez ere ".

Gazta sarituak

Gaztak eta makailua saltzen dituen Jose Ramon Etxabe legazpiarra da. Hamar urte daramatza bere aita eta anaiarekin lanean, " Bost urte daramazkit Elgetara etortzen. Goizeko seietan jaikitzen naiz eta anaia Aretxabaletan utzi ondoren Elgetarako bidea hartzen dut. Zortzirak eta erdietarko dena antolatua izaten dut". Jose Ramonek, besteak ez bezala, Elgetan bakarrik saltzen du, " Ni ez naiz herririk herri ibiltzen. Nire anaia ibiltzen da. Ni, aitarekin batera, Legazpin daukagun gaztandegian egoten nahiz astean zehar ". Hainbat sari irabazitakoak dira



Oraindik ere ez da gizonik ikusten erosketak egiten.

legazpiar hauek " Duela bi urte Gernikako feria berezian sarituak izan ginen eta aurten Elorrioren egiten den ferian ere sari nagusia lortu dugu " Diozku Jose Ramonek. Horren ezberdinak diren jaki bi saltzearen arrazoia galdetzean honela erantzun zigun hogeitahamabi urteko legazpiar honek " Gure berezitasuna gaz-

tak dira eta makailua konplemento bat besterik ez da".

Jose Ramon oso gustora aurkitzen da gure artean Mari Tere fruitu saltzailea bezalaxe. Zumarragatar honek bost urte daramatza Elgetara etortzen baina aurretik, urte askoan, bere anaiak ere etorri izan ziren.

Orain laranja asko saltzen ari direla eman digu aditzera Mari Terek " Garaian garaikoa saltzen dugu. Orain laranjak eta mandarinak ari gara saltzen batez ere ". Mari Terek bitxikeri baten berri eman digu, " Elgetako emakumeak oso goiz hasten dira erosketak egiten, beste herri gehienetan baino goizago ".



"Elgetako emakumeak oso goiz hasten dira erosketak egiten, beste herrietan baino goizago."

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

Elgetako idazle gazteak

Hilabete honetan Elgetako Herri Eskolako Janire Lazkanok

lehiaketara aurkeztutako ipuina dakarzkizuegu.

Janire laugarren mailan dago eta 9 urte ditu.

Familia eta Dragoia

Bahin batean, haitzulo batean, dragoi bat eta familia bat bizi ziren. Bi ume zituzten: Andrea eta Joanito. Dragoiak asko laguntzen zion familiari: lanak egiten, berotasuna ematen, janaria bilatzen eta abar.

Umeak oso pozik zeuden OLENTZERO zetorrelako.

Dena prestatzen hasi ziren: Zuhaitza, jaiotza etab.

Elurra zen mara-mara eta umeak eta dragoia jolastera irten ziren.

Joanitori eta Andreari eskuak izoztu zitzaizkien eta dragoiak epel-epeletan ipini zizkioten. Berehala prestatu ziren elurretako panpina amaitzeko. Neka-neka eginda heldu ziren etxera.

Gaua iritsi zen eta denak afaltzen hasi ziren oilasko errea, umei gehien gustatzen zitzaien janaria baitzen. Gero, denak lotara joan ziren eta lo seko gelditu ziren. Hurrengo egunean, denak jaiki eta gosaltzen hasi ziren. Umeak pozez zorutzen zeuden hurrengo egunean Olentzerok zer ekarriko zioten pentsatzen.

Familia eta dragoia ehizera joan ziren eta basurde handi-handi bat ekarri zuten. Iluntzean denak afaldu eta zakuetara joan ziren lo egitera. Olentzerok asko tardatu zuen, haitzuloa bilatzen egon baitzen ia gau guztia. Hurrengo egunean pozaren pozez negarrez hasi ziren.

Egun zoriontsu hura ez zitzaien inoiz ahaztu.


Janire Lazkano
4. maila 9 urte

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Artekale 3.

Mo: 970773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELETAN**

Sagar erreak natilaz beteak Sukaldariak: haurrak



NOLA PRESTATU

Hasteko, sagarrei asubila kendu. Sagarrak ondo garbitu eta oraindik bustiak daudela koilarakada bat azukarra bota gaisetik. Labera sartu eta su baxuan poliki-poliki laga egiten.

Natila egiteko: esnea sutan berotzen ipini. Bitartean, esne basokada baten bi natila sobre bota eta ondo eragin, kozkorak ez ateratzeko. Ondoren, basokada hau esne irakinari gehitu eta astiro-astiro eragin. Natila sendotu arte sutan eduki.

Sagarrak labetik ateratakoan, eginda duten zuloa prestatutako natilaz bete.

Karameloa egiteko: ontzi batean ura berotzen ipini eta azukarra bota gorputza hartu arte.

Azkenik, sagarrei karamelua gaisetik bota eta jateko prest egongo da.

OSAGAIK

- 3 sagar
- litro bat esnea
- 2 sobre natila hautsa
- 4 koilarakada azukarra
- basokada bat ura



GOMENDIOAK:

- Sagarrak tamaina handikoak izatea komeni da gero bete ahal izateko.
- Karamelua botatakoan, guztiz gogortu aurretik jatea komeni da.


Estetika eta Masaia



MAITE CEBRIAN

Andra Mari Plaza, 1
Tel: 943 76 82 72 Elgeta

Komentu Kalea, 12 - 1
Tel: 94 681 63 75 Durango



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxes: 768243

TAPEM, S.A.

**Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**

Futbito txapelketa urtarrilaren 16an hasiko da

Azken uneko ezustekorik egon ezean datorren hilaren 16an emango zaio hasiera futbito txapelketari. Gaur arte sei talde mutiletan eta hiru nesketan dira izena eman dutenak. Izen emateko azken eguna abenduaren 30a da.

Txapelketari azken urteetan falta izan zaion seriotasun puntua ematearren, aurten, arautegian zerbait aldaketa egingo dira.

Aldaketa nabarienak asistentzia ezari edo antzeko falte dagokienean izango dira. Jokoko arautegian ez da aldaketa handirik izango.

Ezinbestekoa da taldeetako partaide guztiek arautegi berria arretaz irakurtzea eta txapelketa guztian zehar errespetatzea bestela aldaketa hauek ez dute ezertarako balio izango.

Elkoro 4 t' erdiko finalaren atarian geratu da

Ligaxkako azken partidaren Eugi 22 eta 17 gaititu arren Aitor Elkoro ez da 4 t' erdiko finalean izango.

Beasainen jokatu zen partidua erabakiorra izan zen Aspe enpresatik finalerako sailkatu zen pilotariaren izena jakiteko. Aitorrek partidua irabazteaz gain Agoitzko aurrelaria hamaika tantu edo gutxiagoan utzi behar zuen. Partidako zenbait unetan bazirudien ezustekoa izango zela, Elkoro 13 eta 6 eta 15 eta 7 irabazten joan baitzen. Azkenean Eugik 17 tantu egin zituen eta horrekin batera finalerako txartela lortu ere bai. Orain Jorge Nagore izango du aurrez aurre.

Aitorrek finalerako txartela lortu ez arren pilotari haundia dela erakutsi du berriz ere.

Saskibaloia: bigarren fasean itxura hobea

Aurreko alean hitz gogorak izan bagenituen Estampakoei buruz, oraingo honetan berri hobea dakar kizuegu. Bigarren faseko hiru partidatan hiru garaipen lortu dituzte eta txapelketako lehen postuan aurkitzen dira.

Joko aldetik gora-behera asko izaten ari diren arren, partidu guztiak zailtasun handiegirik gabe irabazten ari dira. Garaipenak defentsan egindako lan onari esker lortzen ari dira batez ere, saskira begira ez baitabilta oso fin.

Xabier Osoro onena bolo txapelketan

Elgoibarko San Migel auzoko Xabier Osoro izan da Gabonetako Bolo txapelketan onena.

Osorok 23 txirlo bota ditu txapelketa osoan zehar, bigarren sailkatu den Jose Plazak baino bi gehiago eta Eibarko Gamix Rodrigezek baino hiru gehiago.

Azken tiradan onena Markinako Antonio Ibarluzea izan zen bost txirlorekin Barinagako Jose Baskaranek bezala.

Urtero bezala partaidetza eta joko maila oso altua izan da txapelketan.



Partaide ugari izan dira bolo txapelketan.

IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak




24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatu: 247262
tel: 789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara!

Tel: 768078



Aurreko alian esaten giñuan birentzako afarixakin batera **Goibekokaleko** kamisetia be erregalauko giñuala. Ezta hola be!!! Ez dogu kartaik jaso. Zeiñ izan dan oztopua?

-Ba, kanpaia joten dabenak ez dabela **Goibekokale** irakurri

-Ermitta zale asko ez dagola gure herrixan

-Ta balitteke abuztuan Zabaletako jaixetara fatia baiño gauza erakargarriaurik badagola.

Holako testun bat egittia pentsatzen giñuan baina ez! Karta pillo bat jaso doguz orainguan! Orainguan, kanpaian nundik norakuak jakitzearren **Migel Angel Azpitarte** fango da afaltzera. Auzokua izanda zela ez ba jakin ze kanpai dan?

Olentzerok oparixak ekarriko dittu, ta guk be euki bihar dogu antzerako zeoze egitteko borondatia. Gabonak dirala ta prest gare afarixekin batera kamiseta pare bat emoteko be.

Zer da hau? Erabili leikela esango dotzuegu errezaua izateko.

Zuretzako nahi dozuzela? Idatzi **Goibekokalera**. Salbador kaleko 2. zenbakixan gare, Kultur Etxian.



ERREKALDIA

Ermite: San Kristobal

Jaia: Uztailaren 10ean

San Kristobal egunaren bezperan edo bezperaurrekoan hasten dira jai antzean pinua jasotzearekin. Hau iluntzean egiten da eta ondoren auzoko gazteek txokolate jana egiten dute.

Normalean bi edo hiru egunetan izaten da erromeria, horietatik San Kristobal eguneko auto bedeinkaziñoa delarik ekintzarik famatuena (kotxeak lorez adornatuta bide baztarrean egoten dira parkatuta eta abadeak banan-banan bedeinkatzen ditu). Dantzaldiak gauzez izaten dira eta San Ferminetara joan ez direnen topaleku.

Gainera martxoko egun baten meza ospatzen dute auzokoen alde (Hermandadeko Meza) eta beste meza bat maiatzak batean.

Auzotarren bat hiltzen denean bederatziruureneko meza ere bertan ospatzen da.

Baserriak eta etxeak:

- | | | |
|-------------------------------|--------------------------------|----------------------------------|
| - Loidi Etxebarri | - Aldai Etxebarri | Barrena) |
| - Loidi | - Aldai Gaiñekua | - Edui (Eduegi) |
| - Loidi Bolu | - Aldai Aurrekua | - Amuskibar |
| - Loidi Bolu berria | - Aitzol | - Amuskibar Bolu |
| - Askasibar | - Gaztelu | - Gaittao Aldekua (Garitano A.) |
| - Askasibar Bolu | - Aldai Azpikua | - Gaittao Gainekua (Garitano G.) |
| - Askasibar Bolu berria | - San Kristobal | - Gaittao Erdikua (Garitano |
| - Belastegirena | - Elkone (Elkoro Berezibar) | Markezkoa) |
| - Meltxorrena (Unamuno Berri) | - Bitzibar (Berezibar Erdikua) | - Gaittao Barrena (Garitano B.) |
| | - Bitzibar Barrena (Berezibar | - Osingain |

Begararekin 1348an elkartu zen baserri multzo hau, Oxirondoko Elizatearekin batera, orduan usu zen "sua"ren eskubidea indarrean jarriz, hau da, etxe bakoitzak erabakitzea aukera ematen zion Hiriarekin bat egin edo ez. Horrela baserria eta zegozkion lurra erabakitzen zuen hiriaren zati izan zitezkeen. 650 urte pasatu dira ordutik eta orduan ezarritako mugak aldatu ere bai, baina ia sortu berria zen Elgetako Udalerriarentzat golpe haundia izango zen osatzen zuen lurralderik gehiena galtzea, bere indarra, batez ere, nekazalgoan eta ganaderitzan egonik eta ez, Bergararen kasuan bezala, hiri komertzial izatean. Erabaki garrantzitsu hura hartu zutenen baztarrean egon ziren Bezeribartarrak ere.

Berezibar izena daramaten hiru baserri



Bitzibar Erdikua eta Azpikua.

daude: Berezibar Elkone, Berezibar Erdikua eta Berezibar Azpikua. Hirurak leku berdintsuetan daude eraikiak: erreka-txoen alboan etxerako ur korronea ziurtatzeko eta, bestalde, Angiozar erreka sortutako ibarraren ertzean, Elkonek hartzen duen ibarraren zati

bat.

Garai baten Bergararik zetorren bidea erreka bestalde zihon, gaur egun ere ikusi daitezke larrik, eta alde honetara pasatzeko tarteka zubiak zeuden. Horietako bat da Bitzibar Erdikuaren aurrean dagoena eta gaur egun Eduegi baserrira

joateko erabiltzen dena.

Berezibar Azpikua

Berezibarretan nortasun haundiena izan duena, behar bada, Berezibar azpikua izango da, izan ere, 70. hamarkadaren hasierararte etxe honen beheko aldean taberna

egon baitzen eta aurrealdean zeukan bolatokiaren inguruan giro aparta, batez ere Sankristobaletan. Gero taberna desagertu eta auzoak nortasun apur ere galdu egin zuen. Taberna izateari utzi eta alde hau etxe bizitza bihurtu zen, egitura mantenduz.

Etxeari egin dioten berrikuntza osoarekin galdu ditu taberna izandakoaren atea eta abar, itxura osoagoa emanez. Berez etxe bizitza zati honen gainean dago, aldapa gogorrean eraikita egonik aldatza aprobeztatu eta beheko alde honetan upategia egongo zelarik hasiera batean. Garai baten etxeak beste egituraren bat izan zuen, seguruenik hegoaldera begira, Bitzibar erdikua bezala, baina horren aztarna teiltuaren zatiketa berezian gelditzen da soilik.

Azkarate-Askasua familia da bertakoa, azken urteetan kimu berriak itsatzi badira ere, etxean hiru alaba izatean.

Bitzibar (Berezibar) Erdikua

Barruko egitura beste etxe guztien arauak betetzen baditu ere alde nagusia hegoaldera begira edukitzeak eta kaminoaren errebueltan egoteak atentzioa deitzen diote bidean doanari. Etxe hau ere zeharo aldatu da azken urteetan: isu bat gehitu, atzerantz zabaldu, arkuak egin eta etxe inguruan larrain dotorea eratu lehengo lekuezari beste zabaltasun bat emanez, eta lasaitasuna ere bai.

Baina berrizte horretan ezaugarri polit askoak ere galdu ditu. Esate baterako errekatxo ondoan zegoen erlentzako txabolatxo, bere



Bitzibar Erdikua.

enbor hustuetan egindako erlauntziekin. Etxeek zuten betebeharrak ekonomiko osoaren ezaugarri dira halako eraikuntzak. Etxeak bizibide osoa ematen zion bertan bizi zen familiari eta erleek ezta emateaz gain argizaria ere ematen zuten (eta dute), etxea argitzeaz gain etxe hildakoen hilobi gainean ezartzen zen argizaiolarako erregaia emanez. Hildakoen erritualen artean, etxe jauna hiltzen zenean, erlei ematen zitzaizkien horren berri, lanean jarrai zezaten. Etxe guztiek zuten lehenago halako erletxea, gero garrantzia galdu ahala desagertu direlarik.

Elkoroiribe familia dugu bertakoa, etxe

honetatik bailarako beste etxe batzuetara ere zabaldu direlarik: Eduegira edo Angiozarko kalera. Berezibar azpikuan bezalaxe Erdikuan ere "dinastia" aldaketan daude Kontxi Elkoroiribe eta Pello Urteaga Idiazabal-darra etxera ezkondu zirenetik.


Berezibar Elkone

Duen arku dotoreak salbatzen du etxe hau bestela duen egitura desitxurosotik. Erdiko medianatik bereizten da ekialde-mendebalde bi etxe bizi-tza desberdinetan, baina albo bietako teiltuak ez eta hormak ere bat ez datoze-larik suterren bat jasandako etxea edo bukatu barik

dagoenaren itxura dauka. Inpresio hau haundiagoa da oraindik erreka aldetik ikusiz gero.

San Kristobal ermita azpian dago kokatuta bien tarte Gaztelutik behera datorren errekatxo dutelarik. Etxeko zati guztiak errenkadan dituen etxe bakanetarikoa da, duen zabal-luzeerak beste banaketarik ez du posible egiten eta. Esan bezala duen arku barrokoak nortasuna ematen dio, gako polita duelarik errematean.

Elorza apelidoa izanik bertakoa ere Zipitriara aldatuta daude azken aldi honetan. Etxe honetakoa zen Migel Elorza aipatu gabe ezin laga. Bizikletara afizionatu amorratua enziklopedia espezializatua zen Tourra, Giroa eta Espainiako bira. Karreristen biografia, curriculum eta detaile guztiak botatzen zituen telebistan ikusi orduko, Angiozarko uda aldeko arratsaldeetan komentaria lanak eginenez bere datu historiko amaigabeekin.



Bitzibar Elkone.

Peace and love



Gabonak dia, berba potoloko egunak, zorionak alde batetik ta zorionak bestetik: bakia, maitasuna ta alkartasuna. Hala da, bai; baina, lasai, laster pasauko dia gabonak-ta.

Ameriketaren hurakanak eraiñddako triskantzia haundixa izan da: hilddako mordua, eta beste mordo bat ez etxe eta ez ezer barik. Ixa-ixa lehengo moduan. Hala ta be, gogorak dia gero horrek sudamerikanuok. Bostehun urte aberastasunak ohostu eta egurra emoten; beti be, orainguan moduan, jaungoikoren laguntza ta guzti, ta ondiok hor irauten dabe. Jende gogorra benetan.

Suerte txarra dake pobriak, beti eurai tokau bihar holakuak. Terremotorik badago, beti egongo dia parian pobren batzuk; urjolak badia, gauza bera; sikutia badago, be bai. Ixan be, asko dia (ehun milatik goraredo mundu osoan) eta normalian pilatuta egoten dia.

Ertamerikakuei mundu osotik iritsi jakue elkartasuna naturak? eraiñddako desastria konpontzeko, edo hobe esanda, konpontzen laguntzeko. Periodiku eta telebisiñuetan notizia inportantiena izan da egun batzutan. Dagoeneko ez dozue ixa inun ikusiko horren barri, lehen egunetako negarrak, hildakuak, eta lokatzak ez daoiz hain bistan-ta. Pobriak bai, oiñ be badaoz, lehengo moduan, baiña ez dia notizia.

Nikaraguko presidenteak erakutsi dozku eskertxarrekuia dala eta zenbat ardura dotzan herrixak: Kuba prest medikuak eta ahal eban laguntza bialtzeko,

eta berak ezetz, ez dabela onartuko Kubaren laguntzarik. Honduraskoarena be ezta ixan hobia: Karibe aldeko plaiak salduko omen di-ttu ez dakitt zenbat diru lortzeko. Erosliak ez dia faltako, oso leku polittak izan bihar dia-ta. Problemia, bertan bizi dian indigenak eta gaintzakoak, lurrik eta bizitzeko leku barik geldittuko diala. Ez eben eukiko ez eskritturarik ez ezer, ezta faltarik bez; publikoa eta pribatua gauza diferentia izangoda-ta guretzat eta euron-tzat; baiña, oiñ, ezer barik geldittuko dia. Orduan, ez dago problemarik, nahiz eta gero, auskalo ze desastre eiñgo daben bertan horrek lurrok erosten dabenak.

Oraiñ dana da diru batzia, dana da Gobernu Kanpoko Erakunde (GKE), dana da laguntza. Geu be, hor ibili giñan gure denboran txino edo beltz buru bat hartu eta diru eske. Ordu-tik ez dia asko mejorau txinuok (edo antzerakuok) eta baltzok, eta hola jarraitu ezker ezta mejorauko be.

Akaso, batek baino gehixauk pentsauko dau, laguntzarik eman ez, eta esandako guztia neure burua zuritzearren jarri dotela, igoal bai (orri hau betetzearren be bai), baina emoten dabenak be, bere burua zuritzearren ez ete dau eitten askotan?

Hau eskribitzen niharduala TioSam hasi da berriz biharrian. Ze egingo dotzau ba! Ze demonio! dibertidu deila bera be, gabonak ondo pasatzeko dia-ta.

Kontuz gero, mahatsakin iztarrixa trabau barik eta urte barri on danoi! Bai, zuri be bai!

Enrike Gorrotategi

Ameriketaren hurakanak eraiñddako triskantzia haundixa izan da: hildako mordua, eta beste mordo bat ez etxe eta ez ezer barik. Ixa-ixa lehengo moduan

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.


Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxes: 78 90 46



Larunbatetan eta igandeetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

TABERNA
BARRA DE ROKUA
DATE TXEAL

tel: 768273



**KONTXI
ARRANDEGIA**
Salbador 5 Tel: 768009



Erretratua: Kandido Elortza

Misiñuetarako eskian

Ez dogu jakin seguru hau erretratuau misiñuetarako dirua batzen ibili ziran egunian etarata dagon. Bestela, erretratua etartzeko bakarrik hartu zittuen mosu baltzok. Dana dala, bertan ikusi geinken batek esan dozkunez, dirua batzeko horrek itxulapikuok urte guztian eskolan eukitzen ei zittuen. nahi dabenak ahal dabenian dirua bota deixen. Aspaldixan amantal azulak eta arrosak ikusten ohittua gare, baiña ikusi geinken moduan, orduan, gehixenak, bata zurixakin egoten ziran, neskak bai behintzat. Hemen dakazuez ba erretratua etartzeko edo misiñuetarako diru eskian ibili ziranen ize-nak:

Gorengo illaran: Maria Luisa Telleria, Begoña Arantzeta, Irena Arantzabal, Miren Arantzeta eta Irene Bolinaga.

Azkenaurreko illaran: Arrate Elkoro, Mari Asun Barrutia, Felisa Laspiur, Rosita Irazabal, Mari Karmen Elorriaga eta Itziar Vázquez.

Goitik hasi ta hirugarren illaran: Maribi Irazabal, Mari Karmen Etxebarria, Mari Mercedes Gorosabel, Begoña Telleria, Mari Tere Erostarbe, Pilar Idigoras, Mariasun Agirre eta Mari Paz Bolinaga.

Beheratuau: Rosario Agirre, Aurora Iturriagaztelu, Arantxa Aretxaga, Edurne Alberdi, Gema Etxebarria, Belen Arantzeta, Nerea Arantzeta, Kontxita Arantzeta, Irene Egizabal, Jesusita Retolatza, Maritxu Arotzena eta Maria Esther Telleria

Hurrenguan: Karmen Oianguren, Maribel Agirre, Kontxi Gorrotxategi, Begoña Arotzena, Jesusita Iturriagaztelu, Angelita Markiegi eta Iñaxio Arantzabal.

Beratuau: Izaskun Mendikute, Mari Isabel Arantzeta, Mari Sol Alberdi eta Pilar Askasibar.

Azkenengo illaran: Kontxi Retolatza, Jorge Bolinaga, Enrike Aizpurua, Jose Iñaxio Erostarbe, Fernando Erostarbe, Iñaki Legaristi, Felix Bolinaga, Rosita Arantzeta, Karmelo Mendikute, Jabier Elorriaga, Jose Ramon Arrazola, eta Garbiñe Etxebarria.

Zaborra

Behar den unean

dagokion gunean



Zabor Bilketa:

Igande, Astearte eta Osteguneta

21:00etatik 22:00etara

